



EBAZPENA, 2026eko otsailaren 16koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen eta xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien behin-behineko zerrenda argitaratzea 2026/2027 ikasturterako.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan irakasleen aldi baterako premiak betetzeko ordezkogaien zerrenda kudeatzeari buruzko araudia onartzen duenak, V. kapituluan eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako hitzarmen kolektiboa berriak III. eranskinean xedatutakoaren arabera (2025eko uztailaren 29an sinatua), 2026/2027ko ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda urtero birbarematzeko prozedura egin behar da.

Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2025eko azaroaren 20ko Ebazpenaren bidez, birbaremazio-prozesu hori ireki zen.

2025eko azaroaren 21ean argitara eman ziren ordezkogaien fitxak, eta 2025eko azaroaren 21etik abenduaren 1era (biak barne) epea ireki zen aukerak aldatzeko, merezimendu berriak aurkezteko edo egoki iritzitako alegazioak egiteko.

Epe hori pasa ondoren, ordezkogaiek eskatutako aldaketak eta aurkeztutako dokumentazioa eta alegazioak aztertuta, 2026/2027ko ikasturtean ordezkapenak egiteko ordezkogaien behin-behineko zerrenda ematen da argitara. 2025eko azaroaren 20ko ebazpenak zazpigarren atalean azaltzen dituen egoeretan dauden pertsonak integratu dira zerrenda horretan. Bestalde, 2025eko azaroaren 20ko ebazpenaren zortzigarren eta bederatzigarren ataletan azaltzen den egoeretan dauden pertsonak zerrendetatik at geratu dira.

Aipatutako zerrendan aukeren aldaketak, onartu direnak, eta aurkeztutako merezimendu berrien barematzea sartzen dira. Halaber, zenbait izangairen ordezkapen-aukeretan eta merezimenduen baremazioan antzemandako akatsak zuzentzen dira, zuzenketa horren ondorioz puntuazioa murriztu ahal izango baitzaie.

BERRIKUNTZA gisa, 2026/2027 ikasturteko birbaremazio-prozesuan, izangaien fitxako LAN-EGOERARI buruzko informazioa ezabatu da, bai eta prozesu horren eskaeran lan-egoera aldatzeko aukera ere.

Izangai bakoitzak 2026/2027 ikasturterako izan nahi duen lan-egoera aldatu ahal izango da abuztuaren erdialdetik aurrera, Ordezlagunea atariaren lan-egoera aldatzeko funtzionaltasunaren bidez, behin plataforma ikasturte berrirako irekitzen denean (betiere ikasturteko lehen eskaintza egin aurretik, zeina abuztuaren amaieran egingo baita).

COCUren (ikasturte-hasierako plazak esleitzeko prozesua) lan-egoerari dagokionez,

egoera hori aldatu ahal izango da prozesu horretan horretarako ezartzen den epearen barruan. Hurrengo komunikazioetan (2025/2026 ikasturte honetan), COCUREn lan-egoeraren kudeaketa nola egin ahal izango den eta birbarematzen ari den hautagaiaren lan-egoerarekin zer lotura duen zehaztuko da.

Horregatik,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Argitara ematea 2026/2027ko ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko ordezkogaien behin-behineko zerrenda.

Bigarrena.- Zerrenda horiek <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurkitza/ezkuntza-langileak/> Ordezkapenetarako izangaiak / Irakasleak edo Irakasleak ez diren langileak (kasuaren arabera) / 2025/2026 ikasturtearen birbaremazioa web orrian eta Interneteko helbide honetan: <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> (sartu NAN/AIZ eta pasahitza) - Eremu pertsonala - Izapideak langileen sailarekin- Ordezkapen izangaien birbaremazioa - 2026/2027 ikasturtea.

Hirugarrena.- Erreklamazioak egiteko epea irekitzea 2026ko otsailaren 18etik 24ra, biak barne. Epe horretan bertan zuzendu ahal izango dira aurkeztutako dokumentazioan edo hasierako birbaremazio-epean egindako eskabidean egindako akatsak.

Erreklamazioak telematikoki egingo dira, Interneteko helbide honetan: <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> (sartu NAN/AIZ eta pasahitza) - Eremu pertsonala - Izapideak langileen sailarekin- Ordezkapen izangaien birbaremazioa - 2026/2027 ikasturtea - "Erreklamazioak eta/edo zuzenketak". Azken atal horren barruan:

- "Dokumentazioa" eta/edo "Kontserbatorioak/Dantzerti" erlaitzan, birbaremazioaren hasierako epean entregatutako eta erregistratutako dokumentazioa kontsultatu ahal izango da, eta lerro bakoitza sakatzean "Administrazioaren erantzuna" atala. Azken atal honetan, dokumentazio horren egoera erakutsiko da (baliozkotua, baztertua edo zuzentzeko zain), eta, azken bi kasuetan, arrazoia eta/edo, kasuaren arabera, azalpen bat jaso ahal izango da "Oharra" atalean.
- "Erreklamatu/zuzendu" erlaitzan erreklamazioa eta/edo zuzenketa aurkeztu ahal izango da beharrezkoa izanez gero, Administrazioaren erantzuna berrikusi ondoren. Erlaitza horren barruan, goiko aldean, erreklamazioa eta/edo zuzenketa aurkezteko moduari buruzko jarraibideak agertuko dira.

Laugarrena.- Karrerako funtzionario izendatu dituzten kidegoari dagozkion espezialitateetako zerrendetatik kanpo uztea honako prozesu hauetan parte hartu duten pertsonak:



a) Iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesua, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko, 2022ko azaroaren 30eko eta 2022ko abenduaren 20ko Aginduen bidez deitua. Karrerako funtzionario izendatu dituzten kidegoari dagozkion espezialitateetako zerrendetan egingo da bazterketa.

UNAI NIETO MARIJUÁN
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteiz, 2026eko otsailaren 16an